

# 2025

## Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasunaren urteko txosten integratua

Informe anual  
integrado  
de la Hacienda Foral  
del Territorio  
Histórico de Álava

- ▶ Ogasun, Finantza  
eta Aurrekontu Saila
- ▶ Departamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos



▶ Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava



<b>1. AURKEZPENA.....</b>	<b>1</b>
<b>1. PRESENTACION.....</b>	<b>1</b>
<b>2. KOIUNTURA EKONOMIKOA.....</b>	<b>5</b>
<b>2. COYUNTURA ECONOMICA.....</b>	<b>5</b>
<b>3. TRIBUTU-KUDEAKETA.....</b>	<b>13</b>
<b>3. GESTION TRIBUTARIA.....</b>	<b>13</b>
<b>3.1. TRIBUTU-ARAUDIA.....</b>	<b>15</b>
<b>3.1. NORMATIVA TRIBUTARIA.....</b>	<b>15</b>
<b>3.2. ITUNDUTAKO ZERGEN BILKETA.....</b>	<b>37</b>
<b>3.2. RECAUDACION DE TRIBUTOS CONCERTADOS.....</b>	<b>37</b>
<b>3.3. TRIBUTU-KUDEAKETA: LABURPENAK.....</b>	<b>43</b>
<b>3.3. GESTIÓN TRIBUTARIA: RESÚMENES.....</b>	<b>43</b>
<b>3.4. ZENBAIT ZERGA.....</b>	<b>53</b>
<b>3.4. VARIOS IMPUESTOS.....</b>	<b>53</b>
3.4.1. PFEZ.....	55
3.4.1. IRPF.....	55
3.4.2. SOZIJETATEAREN GAINEKO ZERGA.....	61
3.4.2. IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES.....	61
3.4.3. ONDAREAREN GAINEKO ZERGA.....	71
3.4.3. IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO.....	71
3.4.4. BEZ.....	77
3.4.4. IVA.....	77
3.4.5. ZERGABILKETA EXEKUTIBOAN.....	83
3.4.5. RECAUDACIÓN EN EJECUTIVA.....	83
<b>4. IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA.....</b>	<b>87</b>
<b>4. LUCHA CONTRA EL FRAUDE.....</b>	<b>87</b>
<b>5. EKONOMIA ETA FINANTZA JARDUERA.....</b>	<b>123</b>
<b>5. ACTIVIDAD ECONOMICO-FINANCIERA.....</b>	<b>123</b>
<b>6. ZERGA ITUNDUAK.....</b>	<b>137</b>
<b>6. COMPROMISOS INSTITUCIONALES.....</b>	<b>137</b>



**1. AURKEZPENA**

**1. PRESENTACION**



## ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU OGASUNAREN URTEKO TXOSTEN INTEGRATUA. 2025EKO EKITALDIA

## INFORME ANUAL INTEGRADO DE LA HACIENDA FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA. EJERCICIO 2025

### AURKEZPENA

Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasunaren Urteko Txosten Integratua izeneko agiri honen bitartez, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak herritarren eta erakundeen esku jarri nahi du funtsezko tresna bat, beharrezkoa dena Arabako gizarteari informazio hobea emateko Arabako Foru Aldundiaren zerga bilketari eta jarduera ekonomiko eta finantzarioari buruz.

Horrekin batera, txosten hau argitaratuz betetzen da 2013. urterako zerga neurriei buruzko apirilaren 15eko 13/2013 Foru Arauak agindutakoa.

Agiri honek bost atal ditu, aurkezpen honetaz gainera:

Lehenik, 2025eko ekitaldian, hots, txosten honetan aztergai den ekitaldian, izan dugun ingurune ekonomikoaren azaleko deskribapena.

Bigarrenik, itundutako zergen bilketak 2025ean izan duen portaeraren berri ematen da bi tresna erabiliz: batetik, 2025ean zehar zergen arloko araudian egin diren aldaketa garrantzitsuenen funtsezko alderdien azalpena, eta bestetik, ekitaldi horretako zerga bilketari berari buruzko informazioa.

### PRESENTACIÓN

Mediante este documento que recoge el Informe Anual Integrado de la Hacienda Foral del Territorio Histórico de Álava, el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava pone a disposición de la ciudadanía y de las instituciones un instrumento fundamental para cumplir el objetivo de mejorar la información a la Sociedad alavesa acerca de la recaudación tributaria y de la actividad económico financiera realizada por la Diputación Foral de Álava.

Al mismo tiempo la publicación de este informe permite atender al mandato que estableció la Norma Foral 13/2013 de 15 de abril de Medidas Tributarias para el ejercicio 2013.

Este documento consta de cinco partes además de esta presentación:

En primer lugar, una somera descripción del entorno económico existente en el ejercicio 2025 que es el ejercicio al que se refiere este informe.

En segundo lugar, se expone el comportamiento experimentado por la recaudación de tributos concertados producidos en 2025 mediante dos instrumentos, por un lado, la exposición de los aspectos esenciales de las modificaciones más importantes operadas en la normativa tributaria durante 2025 y por otro lado la información sobre la propia recaudación fiscal correspondiente a dicho ejercicio.

Hirugarrenik, Arabako Foru Ogasunak 2025eko ekitaldian zerga iruzurraren aurkako borrokaren arloan burutu dituen ekintzak eta horien bidez lortu diren datuak deskribatzen dira.

Laugarren atalean, jarduera ekonomiko eta finantzarioaren aipamen batzuk egiten dira, lortutako aurrekontu emaitzaren datuei arreta berezia jarritz.

Eta bosgarren atalean deskribatzen da, azkenik, Araban eskumenak dituzten administrazio publikoen (Estatua, Eusko Jurlaritzak, Foru Aldundia eta toki erakundeak) arteko finantza harremanak erregulatzen dituen araudiaren ondoriozko erakunde konpromisoek nolako portaera izan duten, bakoitza bere osagaiekin.

En tercer lugar, se describen las acciones realizadas y los datos que derivan de las mismas en el ámbito de la lucha contra el fraude fiscal que ha desarrollado la Hacienda Foral de Álava durante el ejercicio 2025.

En cuarto lugar, se hacen determinadas referencias a la actividad económico – financiera con especial atención a los datos del resultado presupuestario producido.

Y por último, en quinto lugar se describe el comportamiento que han tenido los compromisos institucionales derivados de la normativa que regula las relaciones financieras entre los distintos niveles de las Administraciones Públicas que ejercen sus competencias en Álava (Estado, Gobierno Vasco, Diputación Foral y Entidades Locales) con sus respectivos componentes.

**2. KOIUNTURA EKONOMIKOA**

**2. COYUNTURA ECONOMICA**



## 2025EAN IZANDAKO EGOERA EKONOMIKOA

Munduko ekonomiak, 2025ean, hazkunde egonkorra izan zuen, aurreikusitakoa baino apur bat hobea, inbertsio teknologikoak, inflazio txikiagoak eta lan erresilientziak bultzatuta, ziurgabetasun handiko testuingurua gorabehera.

ELGaren azken kalkuluen arabera, munduko ekonomia % 3,3 inguru hazi zen. Hazkunde horri eutsi zioten faktoreak honako hauek izan ziren nagusiki: inbertsio handia teknologian/AAn eta muga zergen ondorio negatiboak eta ziurgabetasun politikoa arindu zituzten aldeko finantza baldintzak.

AEBn, BPGa intentsitate nahiko handiz hedatu zen, merkataritza eta muga zergen politika arrisku handia izan arren, eta % 2,1 hazi zen. Politika horien eragina espero zena baino txikiagoa izan da, kontsumoaren sendotasunari esker, inflazioaren pixkanakako beherakadari esker, eta, era berean, enpresa askok erosketak aurreratu zituztelako muga zergen eta merkataritza tentsioen igoeraren aurrean, eta horrek industria ekoizpenaren gorakada eragin zuen.

Txinari dagokionez, ELGak 2025ean % 5eko hazkunde ekonomiko aurreikusten du, eta hedapen handieneko ekonomia handietako bat da.

Euroguneari dagokionez, ELGak 2025ean % 1,4an kokatzen du hazkunde ekonomiko, eta hobekuntza den arren 2024ko % 0,8arekiko, hazkunde globalaren azpitik dago (% 3,3). Europako ekonomiak ziurgabetasun politikoaren eta merkataritza tentsioen eta tentsio geopolitikoaren eraginpean jarraitzen du, eta prezioen presioek erronka izaten jarraitzen dute Europako ekonomia askotan.

## COYUNTURA ECONÓMICA PRODUCIDA EN 2025

La economía mundial en 2025 creció de forma estable y algo mejor de lo previsto, impulsada por inversión tecnológica, una menor inflación y la resiliencia laboral, pese a un contexto de alta incertidumbre.

Según las últimas estimaciones de la OCDE, la economía mundial creció alrededor del 3,3%. Los factores que sostuvieron este crecimiento fueron principalmente una importante inversión en tecnología/IA y unas condiciones financieras favorables que amortiguaron los efectos negativos de los aranceles y la incertidumbre política.

En EE.UU. el PIB se expandió con relativa intensidad a pesar de la política comercial y arancelaria que suponen un riesgo importante, creciendo un 2,1%. El impacto de estas políticas ha sido menor de lo esperado gracias a la fortaleza del consumo por la caída gradual de la inflación, y gracias también a que muchas empresas adelantaron compras ante la subida de aranceles y tensiones comerciales, lo que generó un repunte de la producción industrial.

En cuanto a China, la OCDE estima un crecimiento económico en 2025 del 5%, consolidándose como una de las economías de gran tamaño con mayor expansión.

Para la eurozona la OCDE sitúa el crecimiento económico en 2025 en el 1,4%, que aunque representa una mejora respecto al 0,8% de 2024, está por debajo del crecimiento global (3,3%). La economía europea sigue afectada por la incertidumbre política y por tensiones comerciales y geopolíticas, además las presiones de precios siguen siendo un reto en muchas economías europeas.

Hazkunde dinamikak desberdina izaten jarraitu zuen euroguneko ekonomia nagusien artean. Espainia da Europako hazkundearen buru, % 2,8ko tasarekin. Alemaniak, Frantziak eta Italiak hazkunde txikiak izan dituzte: % 0,4, % 0,9 eta % 0,5, hurrenez hurren.

Espainiako zenbatespena bat dator Estatistika Institutu Nazionalak aurreratutako datuarekin; datu horren arabera, Espainiako ekonomiak % 2,8ko urte arteko hazkundera izan zuen bere BPGd-an 2025ean. Datu horrek berresten du Espainia euroguneko hazkunde ekonomiko handieneko herrialde garatua dela.

Euskadin, 2025. urte osoan, Barne Produktu Gordinaren hazkundera % 2,3 izan dela kalkulatu da. Enpleguari dagokionez, % 1,4ko hazkundera izan zen, hau da, aurreko urtean baino 13.928 lanpostu garbi gehiago, Eustatek egindako kalkuluen arabera

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek urte arteko hazkunde positiboak izan dituzte, bai urteko laugarren hiruhilekoan, bai 2025. urte osoan, lehen sektorean izan ezik.

Lehen sektorearen balio erantsia, balio errealean, % 1,2 jaitsi da 2025eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Urte osoan, jaitsiera tasa % 0,6 izan da.

Industriaren balio erantsiak, urteko azken hiruhilekoan, % 0,9ko urte arteko aldakuntza izan du, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; horrek esan nahi du % 0,7ko hazkundera izan dela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Urte osoan, balio erantsia % 0,4 igo da.

La dinámica de crecimiento siguió siendo desigual entre las principales economías de la zona euro. España lidera el crecimiento europeo con una tasa del 2,8%. Alemania, Francia e Italia muestran crecimientos bajos, del 0,4%, 0,9% y 0,5%, respectivamente.

La estimación para España coincide con el dato avanzado por el Instituto Nacional de Estadística, según el cual la economía española registró un crecimiento interanual de su PIB en el año 2025 del 2,8%, lo que viene a confirmar a España como el país desarrollado con mayor crecimiento económico de la Zona Euro.

En Euskadi, en el conjunto del año 2025, el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) se ha estimado en un 2,3%. En cuanto al empleo, se registró un crecimiento del 1,4%, lo que supone 13.928 puestos de trabajos netos más que el año anterior, según las estimaciones realizadas por Eustat.

Desde el punto de vista de la oferta, todos los sectores presentaron incrementos interanuales positivos, tanto en el cuarto trimestre del año como en el conjunto del año 2025, excepto en el primario.

El sector Primario registró en el cuarto trimestre de 2025 un descenso del valor añadido en términos reales del 1,2% con respecto al mismo trimestre del año anterior. En el conjunto del año, la tasa de descenso se estima en un 0,6%.

El valor añadido de la Industria presentó una variación interanual en el último trimestre del año del 0,9% con respecto al mismo trimestre del año anterior, lo que supone un crecimiento con respecto al trimestre precedente del 0,7%. En el conjunto del año, el valor añadido ascendió un 0,4%.

Eraikuntzaren sektorearen portaera intentsitate handiagokoa izan zen: 2025eko azken hiruhilekoan balio erantsia % 4,9 igo zen 2024ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 0,4 2025eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2025. urtean, eraikuntzaren sektorearen hazkundera % 3,7koa izan da.

Zerbitzuen sektorearen jarduera globalak, urteko azken hiruhilekoan, % 2,8 egin du gora urte batetik bestera, eta % 0,5 hiruhileko arteko balioetan.

Eskariaren aldetik, kontsumo pribatua 2025eko laugarren hiruhilekoan % 2,6 handiagoa izan da aurreko urteko hiruhileko berean kalkulaturakoa baino, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,6 hazi ondoren. 2025ean, kontsumo pribatua 2024an baino % 2,7 handiagoa izan da.

Kontsumo publikoak urte arteko % 2,3ko hazkundera izan du azken hiruhilekoan, hau da, % 0,2 egin du gora aurreko hiruhilekoaren aldean. 2024. urtearekin alderatuta, kontsumo publikoa % 1,7 igo zen.

Kontsumo pribatuaren eta kontsumo publikoaren bilakaera bateratua ikusita, azken kontsumoan gastuaren urte arteko % 2,6ko hazkundera izan da urteko azken hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,5ekoa izan zen. 2025. urte osorako, azken kontsumoaren hazkundera % 2,5ekoa izan zen.

Kapital eraketa gordinak (Inbertsioa) % 5,2ko urte arteko aldakuntza tasa izan du laugarren hiruhilekoan. Hiruhileko arteko balioetan, inbertsioa % 0,6 hazi da, eta 2025. urte osoan % 4,0.

El comportamiento en el sector de la Construcción fue de mayor intensidad, con un ascenso del valor añadido en el último trimestre de 2025 de un 4,9% en relación con el último trimestre de 2024, y de un 0,4% en relación con el tercer trimestre de 2025. A lo largo del año 2025 el crecimiento del sector de la Construcción fue de un 3,7%.

La actividad global del sector Servicios en el último trimestre del año avanzó un 2,8% en términos interanuales y un 0,5% en términos intertrimestrales.

Desde el lado de la Demanda, el consumo privado en el cuarto trimestre de 2025 fue un 2,6% superior al estimado el mismo trimestre del año anterior, tras un incremento en relación con el trimestre precedente del 0,6%. El Consumo privado durante el conjunto del año 2025 fue un 2,7% mayor que en el año 2024.

El Consumo público presentó en el último trimestre un crecimiento del 2,3% en términos interanuales, lo que supone un incremento del 0,2% en relación con el trimestre anterior. En relación con el año 2024, el Consumo público se incrementó en un 1,7%.

La evolución conjunta del consumo privado y consumo público determinó un crecimiento interanual del 2,6% del Gasto en consumo final en el último trimestre del año. Respecto al trimestre precedente, el crecimiento fue del 0,5%. Para el conjunto del año 2025, el crecimiento del consumo final se situó en el 2,5%.

La Formación bruta de capital (Inversión) alcanzó en el cuarto trimestre una tasa de variación interanual del 5,2%. En términos intertrimestrales la Inversión aumentó un 0,6% y en el conjunto del año 2025 un 4,0%.

Barne eskariaren bilakaerak, BPGd-a baino hazkunde handiagoarekin, kanpo sektorearen ekarpena negatiboa izan dela adierazten du, bai 2025eko azken hiruhilekoan, bai urte osoan. Horrela, urteko laugarren hiruhilekoan esportazioak % 0,6 igo dira 2024ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, eta inportazioak % 1,8 igo dira. Urte osoan, igoera % 0,4koa izan da esportazioetan, eta % 1,2koa inportazioetan.

Bestalde, 2025ean Arabako esportazioetan eragina izan zuen nazioarteko merkataritzaren dezelerazioak eta, bereziki, automobilgintzaren sektorearen ahuleziak, funtsezkoa baita haren esportazio egituran. Urteko lehenengo sei hilekoan portaera nahiko positiboa izan zen, hazkunde hilabeteak egon zirelako. Bigarren sei hilekoan, bultzada nabarmen galdu zela egiaztatu zen, eta hilabete batzuetan negatiboa izan zen. Horren guztiaren ondorioz, Arabako esportazioak % 3,1 jaitsi dira 2025. urte osoan.

Arabako industria jarduera, esportazioekin bezala, % 4,7 jaitsi zen 2025ean. Automobilgintzan eta ekipo ondasunetan espezializazio handia izateak (sektore oso ziklikoak) Europako desazelerazioaren eragina handitu zuen, esportazioen helmuga nagusiak baitira.

Nazioarteko ingurunerik ahulagoa eta industriaren dezelerazioa gorabehera, Arabako ekonomiak hedatzen jarraitu zuen 2025ean, % 2,2ko hazkunde ekonomikoarekin, EUSTATen azken aurrerapenaren arabera.

Arabako lan merkatuaren bilakaerari dagokionez, eta Eustaten BJA inkestak biztanleria landunari buruz ematen dituen datuen arabera, 2025ean Arabako enpleguak % 2,6ko igoera izan zuen,

La evolución de la Demanda interna, con un crecimiento superior al del PIB, determinó que la aportación del sector exterior fue negativa en el último trimestre del año 2025 así como en el conjunto del año. Así, las Exportaciones ascendieron en el cuarto trimestre del año un 0,6% con respecto al último trimestre del año 2024 mientras que las Importaciones aumentaron un 1,8%. En el conjunto del año, las Exportaciones crecieron un 0,4% y las Importaciones un 1,2%.

Por su parte, en 2025 las exportaciones alavesas se vieron afectadas por la desaceleración del comercio internacional y, especialmente, por la debilidad del sector de automoción, clave en su estructura exportadora. En el primer semestre del año el comportamiento fue relativamente positivo, con meses de crecimiento. En el segundo semestre se constató una clara pérdida de impulso, con varios meses en negativo. Todo ello se ha traducido en un descenso de las exportaciones alavesas en el conjunto del año 2025 del 3,1%.

La actividad industrial alavesa, al igual que ocurre con las exportaciones, registró un descenso durante 2025, del 4,7%. La fuerte especialización en automoción y bienes de equipo, sectores muy cíclicos amplificó el impacto de la desaceleración europea, principales destinos de las exportaciones.


A pesar del entorno internacional más débil y de la desaceleración industrial la economía alavesa siguió expandiéndose en 2025 registrando un crecimiento de su PIB del 2,2%, según el último avance del EUSTAT.

En cuanto a la evolución del mercado laboral alavés y según los datos de población ocupada que arroja la encuesta PRA del Eustat, el empleo en Alava durante 2025 registró un aumento del 2,6% con

2024an batez beste lortutako mailarekin alderatuta.

respecto al nivel alcanzado como promedio en el año 2024.

**BPGd-aren hazkunde erreala / Crecimiento real del PIB**



Iturriak/Fuentes: EUSTAT, INE, EUROSTAT



**3. TRIBUTU-KUDEAKETA**

**3. GESTION TRIBUTARIA**



### **3.1. TRIBUTU-ARAUDIA**

#### **3.1. NORMATIVA TRIBUTARIA**



## 2025EAN ONARTUTAKO ARAUDIA

## NORMATIVA APROBADA EN 2025

## 1.- FORU ARAUAK.

**3/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemako zerga batzuk eta zergen arloko beste foru arau batzuk berrikusteko.**

Foru arau honek sei titulu dauzka, hemezortzi artikulua guztira, xedapen iragankor bi, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. tituluaren familia, berdintasuna, kontziliazioa, emakumea eta gazteria lantzen dira. Zerga sistemaren barruan, ardatz nagusiak pertsona eta beraren beharrak dira, arreta berezia jarrita 36 urtetik beherakoengan, familia ugarietan, guraso bakarreko familietan, desgaitasuna eta mendekotasuna dauzkaten pertsonengan eta etxeko indarkeria edo genero indarkeria jasaten duten pertsonengan, ekitatearen, gehikortasunaren eta birbanaketa funtzioaren printzipioak indartzeko, batez ere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

II. titulua etxebizitzari buruzkoa da. Bertan, teknika fiskalez baliatuz, etxebizitza duinerako eskubidea gauzatzen laguntzeko neurriak berrikusten dira eta neurri berriak ezartzen dira, norberaren bizitzako aukerak errespetatuz eta errentako etxebizitzaren araubidea indartzuz.

III. titulua fiskalitate berdeari buruzkoa da. Bertan ezartzen denaren helburua da klima aldaketari, ekonomia zirkularrari, mugikortasun iraunkorrari eta trantsizio energetikoari lotutako ingurumen erronkei aurre egiten laguntzea da.

IV. tituluaren gaia gizarte aurreikuspena da. Bertan, fiskalitatea baliatuz, bigarren zutabea apurka-apurka pentsio publikoen osagarri gisa finkatzea bultzatzen da, eta enplegatuen eta enplegatzaileen erantzunkidetasuna sustatzen da.

Beste alde batetik, V. tituluaren gehikortasuna eta ekoizpen sarea bultzatzea lantzen dira. Hain zuzen ere, zenbait zerga eta kooperatiben zerga araubidea aldatzen dira, eta aldaketen elementu nagusiak honako hauek dira: batetik, ahalmen ekonomikoaren arabera finkatuko da zerga kargaren muga; bestetik, arreta berezia emango zaie enpresa eragile txikiei.

## 1.- NORMAS FORALES.

**Norma Foral 3/2025, de 9 de abril, para la revisión de determinados impuestos del sistema tributario del Territorio Histórico de Álava y de otras normas forales tributarias.**

Esta Norma Foral se estructura en seis títulos, con 18 artículos en total, dos disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales.

El Título I, que trata de la familia, la igualdad, la conciliación, la mujer y la juventud, se centra en la persona y sus necesidades, con especial foco en los menores de 36 años, familias numerosas, familias monoparentales, personas con discapacidad y dependencia, así como en las víctimas de violencia doméstica o de género, como eje principal de la revisión fiscal, reforzando los principios de equidad, progresividad y función redistributiva, en especial del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, dentro del sistema tributario.

A continuación, el Título II, que versa sobre la vivienda, revisa y adopta diversas medidas que se dirigen, utilizando técnicas fiscales, a ayudar a la materialización del derecho a una vivienda digna, respetando las diferentes opciones vitales y reforzando el régimen de alquiler.

Por su parte, el Título III, de fiscalidad verde, tiene por objetivo contribuir a afrontar los desafíos medioambientales asociados al cambio climático, la economía circular, la movilidad sostenible y la transición energética.

Seguidamente, el Título IV, sobre previsión social, trata del impulso desde la fiscalidad al asentamiento progresivo del segundo pilar como complemento de las pensiones públicas y a la promoción de la corresponsabilidad de empleados y empleadores.

Por otro lado, el Título V, que se ocupa de la progresividad e impulso del tejido productivo, acomete reformas en varios impuestos y en el régimen fiscal de las cooperativas, modificaciones cuyos elementos principales son, por una parte, la capacidad económica como elemento delimitador de la carga tributaria y protección a las rentas más

Azkenik, VI. tituluko zerga neurriek zergei buruzko foru arau orokorrari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari eragiten diete.

**17/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, zenbait finantza entitatereen interesen eta komisioen marjinen gaineko zerga onesten duena eta aldatzen dituen Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua.**

Apirilaren 29ko 3/2025 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duenak, Ekonomia Itunaren I. kapituluaren 1. artikuluan, zergei buruzkoan, 3 ter atal berri bat sartu du, finantza erakunde jakin batzuen interesen eta komisioen marjinen gaineko zerga berriari buruzkoa.

Ekonomia Itunaren 3 ter atal horrek artikulua bakarria du, 20 ter artikulua, eta bertan ezartzen da zerga hori araudi autonomoko tributu itundu bat dela sozietateen gaineko zergan foru araudia aplikatu behar zaien zergadunentzat, Ekonomia Itunaren beraren 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Bestalde, zergaduna atzerriko kreditu entitate baten Espainiako lurraldeko sukursal bat bada, araudi autonomoa aplikatuko zaie zergaren zergadunei, baldin eta, Ekonomia Itunaren 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan foru araudia aplikatu behar bazaie. Aipatutako 20 ter artikulua gainerakoa zergaren lotura puntuez arduratzen da, baita zergaren kudeaketaren eta ikuskapenaren zenbait alderdiz ere.

Foru arau honen xedea da aldi baterako zerga figura berri hori arautzea eta Arabako Lurralde Historikoaren ordenamenduan sartzea. Figura horren iraupena, itunean agintzen duen printzipioetako baten arabera (Arabako zerga sistemak Estatuaren zerga egitura orokorrari kasu egitea eskatzen du), lurralde erkidean ezartzen denak baldintzatuko du.

bajas, y por otra, la atención a los agentes empresariales de menor dimensión.

Por último, el Título VI se ocupa de otras medidas tributarias que afectan a la Norma Foral General Tributaria, al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, al Impuesto sobre Sociedades y al Impuesto sobre el Patrimonio.

**Norma Foral 17/2025, de 12 de diciembre, que aprueba el Impuesto sobre el Margen de Intereses y Comisiones de determinadas entidades financieras, y que modifica la Norma Foral 37/2013, de 13 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, y la Norma Foral 33/2013, de 27 de noviembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.**

La Ley 3/2025, de 29 de abril, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, que aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha introducido dentro del Capítulo I del Concierto Económico, dedicado a los tributos, una nueva Sección 3.ª ter que versa sobre el novedoso Impuesto sobre el margen de intereses y comisiones de determinadas entidades financieras.

Dicha Sección 3.ª ter del Concierto Económico consta de un único artículo, el artículo 20 ter, donde se establece que el citado Impuesto es un tributo concertado de normativa autónoma para los contribuyentes del Impuesto a quienes, según lo previsto en el artículo 14 del propio Concierto Económico, resulte de aplicación la normativa foral en el Impuesto sobre Sociedades. Por otra parte, en el caso de que el contribuyente sea una sucursal en territorio español de una entidad de crédito extranjera, la normativa autónoma se aplicará a los contribuyentes del Impuesto a quienes, según lo previsto en el artículo 21 del Concierto Económico, resulte de aplicación la normativa foral en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes. El resto del citado artículo 20 ter se ocupa de los puntos de conexión del Impuesto, así como de aspectos diversos de su gestión e inspección.

El objeto de la presente Norma Foral es regular e incorporar al ordenamiento del Territorio Histórico de Álava esta nueva figura impositiva de carácter temporal, cuya duración, en virtud de uno de los principios que rige en la concertación, que exige atención a la estructura general impositiva del Estado por parte del sistema

Bestalde, sozietateen gaineko zergaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauei buruzko aldaketa batzuk sartu dira.

Foru arau hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premiaren eta eraginkortasunaren printzipioei dagokienez, arau hori beharrezkoa da zenbait finantza erakunderen interesen eta komisioen marjinaren gaineko zerga arautzeko, Arabako Lurralde Historikoaren zerga ordenamendu juridikoaren barruan. Proportzionaltasun printzipioarekin bat etorritik, adierazitako helburua lortzeko ezinbestekoa den arauak biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta efizientziaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaila izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

**16/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, talde multinazionalentzat eta talde nazional handientzat gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko zerga osagarria ezartzen duena.**

Azken urteotan, nazioarteko fiskalitatearen testuinguruan, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) hainbat gomendio eman ditu zerga oinarriaren higadura eta etekinen lekualdaketa saihesteko (BEPS, ingelesezko sigletan). Nazioarteko neurri fiskalen multzo bat ere garatu du, besteak beste, enpresa taldeek mozkinak zergapetzen ez dituzten edo mozkinak zergapetze txikia ezartzen dieten herrialde edo lurraldeetara eramatea saihestu nahi dutenak. Neurri horiek gutxieneko ezarpen maila globala ezartzen dute finkatutako negozio zifraren zenbateko gardia 750 milioi eurokoa edo handiagoa duten talde multinazionalentzat. Legegintza politikaren xede hori «Ekonomiaren digitalizazioaren ondoriozko erroka fiskalak - Zerga-oinarriaren higaduraren aurkako eredu

tributario de Álava, se encuentra determinada por la que se establezca en territorio común.

Por otra parte, se han incluido algunas modificaciones relativas a las normas forales del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

La presente Norma Foral se adecúa a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En lo que se refiere a los principios de necesidad y eficacia, se trata de una norma necesaria para la regulación del Impuesto sobre el margen de intereses y comisiones de determinadas entidades financieras dentro del ordenamiento jurídico tributario del Territorio Histórico de Álava. De acuerdo con el principio de proporcionalidad, contiene la regulación imprescindible para el objetivo señalado, al no existir ninguna alternativa regulatoria menos restrictiva de derechos. Conforme a los principios de seguridad jurídica y eficiencia, resulta coherente con el ordenamiento jurídico y permite una gestión más eficiente de los recursos públicos. Cumple también con el principio de transparencia, ya que identifica claramente su propósito, y durante el procedimiento de elaboración de la norma se ha permitido la participación activa de las potenciales destinatarias y destinatarios a través del trámite de audiencia e información pública.

**Norma Foral 16/2025, de 12 de diciembre, que establece un impuesto complementario para garantizar un nivel mínimo global de imposición para los grupos multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud.**

En los últimos años, en el contexto de la fiscalidad internacional, la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico (OCDE) ha formulado diversas recomendaciones dirigidas a evitar la erosión de la base imponible y el traslado de beneficios (BEPS, por sus siglas en inglés). También ha desarrollado un conjunto de medidas fiscales internacionales entre las que figuran aquellas que persiguen evitar que grupos empresariales trasladen beneficios a países o territorios en los que no están sujetos a imposición o en los que los beneficios están sometidos a una imposición baja. Estas medidas establecen un nivel mínimo global de imposición para aquellos grupos multinacionales que tengan un importe neto de la cifra de negocios consolidado igual o superior a 750 millones de

arauak (Bigarren zutabea)» izeneko dokumentuan islatu zen, aurrerantzean «ELGaren ereduak arauak». Agiria 2021eko abenduaren 14an onetsi zen, Europar Batasuneko estatu kideak atxiki zitzaizkion BEPSri buruzko OCDE/G20 esparru inklusiboaren bidez.

Horrekin bat etorritik, Europar Batasunean, 2022ko abenduaren 15eko Kontseiluaren 2022/2523 (EB) Zuzentaraua onetsi zen, Batasunean dauden enpresa multinazionalen taldeentzako eta munta handiko talde nazionalentzako gutxienezko zergapetze-maila orokorra bermatzeari buruzkoa, aurrerantzean, 2022/2523 (EB) Zuzentaraua edo Zuzentaraua. Europar Batasuneko zuzentarau hori estatu kide guztiek sartu behar dute beren legedian, 56. artikuluan aurreikusitako moduan.

2022/2523 Zuzentarauak zerga osagarri bat ezartzen dut, bermatzen duena, talde nazional handietako edo talde multinazionalentako entitateek jurisdikzio jakin batean jasaten duten karga tasa ehuneko 15etik beherakoa bada, beste zerga bat jasanaraziko zaiela, zerga osagarria, karga tasa globala gutxienez irits dadin, hau da, ehuneko 15era, errentak sartzeko arauaren bidez edo, bestela, gutxienez zergapetutako mozkinen araua aplikatuz.

Foru arau honen bidez, aipatutako zuzentaraua Arabako Lurralde Historikoan sartzeko betebeharrak bete nahi da, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 20 bis artikuluan xedatutakoari jarraituz. Artikulu horretan ezartzen dira zerga osagarria araudi autonomoko zerga itundua izateko baldintzak.

Hori dela eta, foru arau honek arauak ezartzen ditu merkatu bakarrean diharduten talde multinazional handiei eta talde nazional handiei (gutxienez aurreko lau ekitaldietatik bitan finkatutako negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa dutenei) benetako gutxienezko zerga maila bermatzeko, 2021ean Esparru Inklusiboak lortutako Akordioarekin bat datozenak, eta Esparru Inklusibo horrek adostutako ELGaren ereduak arauak gertutik jarraituko dietenak.

euros. Dicho objetivo de política legislativa se tradujo en el documento denominado «Desafíos fiscales derivados de la digitalización de la economía-Normas modelo contra la erosión de la base imponible (Pilar Dos)» (en lo sucesivo, «Normas modelo de la OCDE»), aprobado el 14 de diciembre de 2021 por el Marco Inclusivo de la OCDE/G20 sobre BEPS al que se adhirieron los Estados miembros de la Unión Europea.

En consonancia, en la Unión Europea se aprobó la Directiva (UE) 2022/2523 del Consejo, de 15 de diciembre de 2022, relativa a la garantía de un nivel mínimo global de imposición para los grupos de empresas multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud en la Unión (en lo sucesivo, la Directiva (UE) 2022/2523 o la Directiva). Esta Directiva comunitaria debe ser transpuesta por todos los Estados miembros, en los términos previstos en su artículo 56.

La Directiva (UE) 2022/2523 establece un Impuesto Complementario que garantiza que, si el tipo impositivo efectivo de las entidades constitutivas de los grupos nacionales de gran magnitud o grupos multinacionales, en una jurisdicción determinada, es inferior al 15 por ciento, se recaudará un impuesto adicional, el Impuesto Complementario, que permita alcanzar el tipo mínimo global del 15 por ciento, ya sea a través de la regla de inclusión de rentas o, en su defecto, de la regla de beneficios insuficientemente gravados.

Mediante esta Norma Foral se pretende dar cumplimiento a la obligación de transposición de la precitada Directiva en el Territorio Histórico de Álava, en virtud de lo dispuesto en el artículo 20 bis del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, en el que se establecen las condiciones en las que el Impuesto Complementario tendrá carácter de tributo concertado de normativa autónoma.

Por ello, la presente Norma Foral establece normas para garantizar un nivel mínimo de imposición efectiva a los grandes grupos multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud (aquellos cuyo importe neto de la cifra de negocios consolidado sea igual o superior a 750 millones de euros en, al menos, dos de los cuatro últimos ejercicios inmediatamente anteriores) que operan en el mercado único, que sean coherentes con el Acuerdo alcanzado por el Marco Inclusivo en 2021, y sigan de cerca las

Reglas modelo de la OCDE acordadas por dicho Marco Inclusivo.

Zerga Osagarria zuzeneko zerga pertsonala da, eta errentak sartzeko arauaren eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen arauaren bidez egituratzen da. Zerga Osagarria hiru modalitatetan oinarritzen da: lehenengo biek errentak sartzeko arauari erantzuten diote, eta hirugarrenak, berriz, behar beste zergapetu gabeko mozkinen arauari: zerga osagarri nazionala, lehen mailako zerga osagarria eta bigarren mailako zerga osagarria.

El Impuesto Complementario es un tributo de carácter directo y de naturaleza personal, que se estructura mediante la regla de inclusión de rentas y la regla de beneficios insuficientemente gravados. El Impuesto Complementario se basa en tres modalidades, las dos primeras responden a la regla de inclusión de rentas y la tercera a la regla de beneficios insuficientemente gravados: el impuesto complementario nacional, el impuesto complementario primario y el impuesto complementario secundario.

Lehenik eta behin, zerga osagarri nazionala errentak sartzeko araua aplikatzearen emaitza da, zergaren aplikazio lurraldean dauden talde multinazionalak eta talde nazional handiak osatzen dituzten erakundeek lortutako errentei dagokienez.

En primer lugar, el impuesto complementario nacional es el resultado de aplicar la regla de inclusión de rentas respecto de las rentas obtenidas por aquellas entidades constitutivas de los grupos multinacionales y grupos nacionales de gran magnitud que radiquen en el territorio de aplicación del impuesto.

Bigarrenik, lehen mailako zerga osagarria errentak sartzeko araua aplikatzearen emaitza da, zergaren aplikazio lurraldean ez dauden talde multinazionalak osatzen dituzten erakundeek lortutako errentei dagokienez.

En segundo lugar, el impuesto complementario primario es el resultado de aplicar la regla de inclusión de rentas respecto de las rentas obtenidas por aquellas entidades constitutivas de los grupos multinacionales que no radiquen en el territorio de aplicación del impuesto.

Azkenik, bigarren mailako zerga osagarriak, behar beste kargatu gabeko mozkinen araua aplikatzearen ondorioz, gutxieneko tributazioa bermatzea ahalbidetzen du, talde multinazionalak lortutako errentei dagokienez, baldin eta errentak sartzeko arau onargarri bat aplikatuta zergapetu ezin izan badira.

Por último, el impuesto complementario secundario, consecuencia de aplicar la regla de beneficios insuficientemente gravados, permite garantizar la tributación mínima respecto de aquellas rentas obtenidas por el grupo multinacional que no hayan podido ser gravadas por aplicación de una regla de inclusión de rentas admisible.

Foru arau honek hamabost titulu ditu, berrogeita hamazortzi artikulua, sei xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

La presente Norma Foral consta de quince títulos, con cincuenta y ocho artículos, seis disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales.

Foru arau hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, arau hau beharrezkoa da zerga osagarria Europar Batasuneko araudiaren eta indarreko Ekonomia Itunaren arabera arautzeko. Proporzionaltasun printzipioarekin bat etorri, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta efizientziaren printzipioen

Esta Norma Foral se adecúa a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En lo que se refiere a los principios de necesidad y eficacia, se trata de una norma necesaria para regular el Impuesto Complementario de conformidad con el vigente Concerto Económico. De acuerdo con el principio de proporcionalidad, contiene la regulación imprescindible para el objetivo señalado, al no existir ninguna alternativa regulatoria menos restrictiva de derechos. Conforme a los principios

arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozedura egiten ari zen bitartean hartzaile izan litezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

**21/2025 Foru Araua, abenduaren 19koa, 2026ko zerga neurriei buruzkoa.**

Foru arau honen xedapenek Arabako zerga sistemari eragiten diote. Hauxe da sartzen dituen aldaketen egitura:

I. tituluaren Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatzen da.

Beste alde batetik, II. tituluaren zenbait aldaketa egiten dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan, ondarearen gaineko zergan, dirutza handien gaineko aldi baterako elkartasun zergan eta ekonomia jardueren gaineko zergan.

Azkenik, III. tituluaren zerga betebeharrak betetzen dituen zergapekoaren estatutua ezartzen da. Bertan zerga betebeharrak betetzen dituen zergapekoak nor diren zehazten da eta aplikatuko zaizkien neurriak ezartzen dira. Neurri horiek geroago zabalduko dira.

Gainera, foru arau honen bidez Arabako ordenamendu juridikoan modu partzialean txertatzen da Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko 2023/2226 (EB) Zuzentaraua (DAC8), fiskalitatearen arloko administrazioen arteko lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

Foru arau hau bat dator Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin.

Premiaren eta eraginkortasunaren printzipioak direla eta, foru arau hau ezinbestekoa da bi gauzatarako: batetik, Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko 2023/2226 (EB) Zuzentaruak (DAC8), fiskalitatearen arloko administrazioen

de seguridad jurídica y eficiencia, resulta coherente con el ordenamiento jurídico y permite una gestión más eficiente de los recursos públicos. Cumple también con el principio de transparencia, ya que identifica claramente su propósito, y durante el procedimiento de elaboración de la norma se ha permitido la participación activa de las potenciales destinatarias y destinatarios a través del trámite de audiencia e información pública.

**Norma Foral 21/2025, de 19 de diciembre, de medidas tributarias para el año 2026.**

La presente Norma Foral contiene disposiciones que afectan al sistema tributario de Álava e introduce modificaciones que se estructuran de la siguiente manera:

En el Título I se modifica la Norma Foral General Tributaria de Álava.

Por otro lado, el Título II introduce diversas modificaciones en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto sobre el Patrimonio, el Impuesto Temporal de Solidaridad de las Grandes Fortunas y el Impuesto sobre Actividades Económicas.

Por último, el Título III, dedicado al estatuto del obligado tributario que cumple con sus obligaciones tributarias, define al obligado tributario cumplidor de sus obligaciones tributarias y establece medidas que le son de aplicación. Medidas que serán objeto de ampliación más adelante.

Asimismo, por medio de la presente Norma Foral se incorpora parcialmente al ordenamiento jurídico de Álava la Directiva (UE) 2023/2226 del Consejo, de 17 de octubre de 2023, por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad (DAC 8).

La presente Norma Foral se adecúa a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En lo que se refiere a los principios de necesidad y eficacia, se trata de una norma necesaria para, por una parte, incorporar parcialmente a este ordenamiento jurídico las previsiones de la Directiva (UE) 2023/2226 del Consejo, de 17 de

arteko lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duenak, ezartzen duena Arabako ordenamendu juridikoan modu partzialean txertatzeko, Europar Batasunaren araudiarekin bat etorri; bestetik, Arabako zerga sisteman zenbait aldaketa tekniko eta hobekuntza egiteko.

Proporzionaltasunaren printzipioarekin bat etorri, adierazitako helburua lortzeko ezinbestekoa den arauketa biltzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

octubre de 2023, por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad (DAC 8) de conformidad con la normativa de la Unión Europea; y por otra, para llevar a cabo diversas modificaciones tanto de tipo técnico como de mejora en el sistema tributario de Álava.

De acuerdo con el principio de proporcionalidad, contiene la regulación imprescindible para el objetivo señalado, al no existir ninguna alternativa regulatoria menos restrictiva de derechos. Conforme a los principios de seguridad jurídica y eficiencia, resulta coherente con el ordenamiento jurídico y permite una gestión más eficiente de los recursos públicos. Cumple también con el principio de transparencia, ya que identifica claramente su propósito, y durante el procedimiento de elaboración de la norma se ha permitido la participación activa de las potenciales destinatarias y destinatarios a través del trámite de audiencia e información pública.

## 2.- ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.

**1/2025 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailea, ekainaren 17koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea urtarrilaren 19ko 12/1993 eta otsailaren 16ko 1/1999 foru dekretu arauemaileak aldatzeari.**

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Autonomia Erkidegoko Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 26. eta 33. artikuluek xedatzen dutenez, Balioaren gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak, hurrenez hurren, Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berberen bidez arautuko diren zerga itunduak dira.

Zerga osagarria abenduaren 20ko 7/2024 Legearen bidez, zerga osagarri bat ezartzen da talde multinazionalentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko, finantza erakunde jakin batzuen interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga bat eta zigarreta elektronikotarako eta tabakoari lotutako beste produktu batzuetarako likidoen gaineko zerga bat, eta beste zerga arau batzuk aldatzen dira. Lege horrek aldaketak sartzen ditu zerga horietan, eta horiek arautzen dituen foru araudian txertatu behar dira.

## 2.- DECRETOS NORMATIVOS DE URGENCIA FISCAL.

**Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2025, de 17 de junio, del Consejo de Gobierno Foral. Aprobar la modificación de los Decretos Forales Normativos 12/1993, de 19 de enero, y 1/1999, de 16 de febrero.**

Los artículos 26 y 33 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establecen que el Impuesto sobre el Valor Añadido y los Impuestos Especiales, respectivamente, son tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

La Ley 7/2024, de 20 de diciembre, por la que se establecen un Impuesto Complementario para garantizar un nivel mínimo global de imposición para los grupos multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud, un Impuesto sobre el margen de intereses y comisiones de determinadas entidades financieras y un Impuesto sobre los líquidos para cigarrillos electrónicos y otros productos relacionados con el tabaco, y se modifican otras normas tributarias, incluye modificaciones en los citados impuestos que deben ser incorporados a la normativa foral que los regula.

Aldaketa horien bidez, abenduaren 20ko 7/2024 Legearen azken xedapenetako lehenengoan eta bigarrenean jasotako neurriak, aipatutako zergei buruzkoak, sartu behar dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailean eta Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Dekretu Arauemailean.

Bestalde, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuari Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian egiteke dauden zenbait aldaketa gehitu zaizkio. Aldaketa horiek, alde batetik, Sektore Publikoko Kontratuak buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen azken xedapenetako hamargarrenetik datoz, eta, bestetik, Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legea aldatzen duen abenduaren 19ko 26/2022 Legearen 2. artikulutik.

**2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldatetara egokitzeari, eta onespena ematea abenduaren 12ko 16/2025 Foru Araua aldatzeari.**

2025eko apirilaren 29an apirilaren 29ko 3/2025 Legea onartu zen. 3/2025 Legearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartu zuena, aldatu zen, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2024ko azaroaren 13ko, 2024ko abenduaren 23ko eta 2025eko otsailaren 6ko erabakia aintzat hartuta; izan ere, batzorde horrek aho batez erabaki zuen Ekonomia Ituna aldatzea onartzeko erabili zen prozedura berari helduta.

Aldaketa horren ondorioz aldatetak egin behar izan dira zergen foru arauetan, Ekonomia Itunaren testu berrira moldatu behar izan baitira. Aldaketa horiek Ekonomia Ituna aldatzen duen legearen ondorio berak dauzkate.

Horrenbestez, bidezko aldatetak egiten dira jarraian zehaztuko diren zergak arautzen dituzten foru arauetan: sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga.

Sozietateen gaineko zerga dela eta, 10 milioi eurotatik 12 milioitara igo da eragiketen

